

**Espediente mota: Administrazio kontratazioa.**

**Kontratua:** Zerbitzu kontratua, prozedura negoziatua publizitateagaz.

**Espediente zbk: 2009-05**

**ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA  
ZEHATZEN LABURPEN ORRIA  
prozedura negoziatu bidezko esleipena**

**A) KONTRATUAREN XEDEA:**

Xedea: Kontratu honen helburu nagusia, Bermeoko Udaleko eraikin guztietan dauden suteei eta lapurretei aurre egiteko sistemen eraginkortasuna bermatzea da, beharrezko diren mantentze, errebisio, konponketa eta hornidurak eginez.

Modu hertsian: Kontratu honen helburuaren funtzioak, udaleko eraikinetan dauden suteei eta lapurretei aurre egiteko baliabide ezberdinen mantenu zerbitzuaren esleipena izango da, beti kontuan edukirik eskatzen den esleipen honek funtzio bi hauek eduki beharko dituela.

**Alde batetik, gaur egun dauden suteei eta lapurretei aurre egiteko sistemen mantenu zerbitzua era egokian bermatzea izango da, hau da, era guztietako su-itxalgailuak, BIEs guztiak, sakagailuak eta suteen aurkako eta lapurreten aurkako alarma sistemak mantentzea eta erabiltzeko presta edukitzea.**

Beste aldetik, lantokietan, beharrezko diren suteei eta lapurretei aurre egiteko baliabideen hornidura eta hauen mantenu zerbitzua bermatu beharko da.

**B) KONTRATU EPEAK; KONTRATU LUZAPENAK; KONTRATAZIO ORGANOA.**

Kontratu hau urte birako izango da (2009-2010), eta luzatu ahal izango da beste urte biko eperako (2011-2012) alderdi biek ados agertzen badira. (Sektore Publikoetako Kontratazioen Legea 30/2007 279.1.artikulua)

Kontratazio Organoa Tokiko Gobernu Batzarra da, edo honek emondako delegazioaren araberakoa.

Zerbitzua epe horretan emoten ez bada, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko deutse, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

**C) KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratu honen prezioa, kontratu honen balio estimatua 90.344,83 eurokoa da BEZ barik. BEZari dagokion zenbatekoa 14.455,17 eurokoa da.



Prezio hau administrazioak ordainduko dauan gehiena da kontratua irauten dauan epe osorako eta luzapenak ere barne. Gastu guztiak eta baita urteko prezio igoerak ere barne dagozala ulertuko da.

Kontratu honek ondorengoak estaliko dauz:

- Baldintza Plegutetan zehaztutako urteko errebisioak eta horreek suposatzen dabean dieta, garraio eta beste edozein gastu ere, BEZ barne.
- Estintore edota BIE barrien hornidura, indarreango legediak exijitzen dauan gitxiengo kopuruak betetzeko, edota matxuratu eta aldatu beharra badago.
- Estintoreen errenergia eta retinbratuak eta horreek suposatzen dabean dieta, garraio eta beste edozein gastu ere, BEZ barne.
- Alarma sistemen pieza aldaketa edota sistema osoaren aldaketa, funtzionamendu egokia bermatzeko, eta horreek suposatzen dabean dieta, garraio eta beste edozein gastu ere, BEZ barne.
- Beste edozein, kontratuaren helburuagaz lotuta dagoana, hau da, segurtasun eta arriskuei aurre egiteko legediek exijitutakoak betetzen dirala bermatu eta sistema guztiak funtzionamenduan mantentzea.

#### **D) NOLA ORDAINDU**

Ordainketak hilerokoak izango dira. Kontratatik bere faktura aukeztuko dau hilabeteko zerbitzuagaitik eta transferentzia bidez ordainduko jako, faktura onartzeko prozedura bete ondoren.

#### **E) PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Kontratuaren lehen urtean prezioak ezin dira berraztertu.

Hurrengo urteetan, prezioak berraztertzeke, erreferentzia modura Euskal Erkidegoko IPC OROKORRA hartuko da, kontratuaren lehen urtearen amaiera baino aurreko hilabetean argitaratutako datuagaz, IPC 2006 baseko sistemaren arabera, I.N.E.-k argitaratzen dauala hain zuzen ere.

Esleipena egin danetik urtebete igaro ondoren eta kontratua %20an exekutatuta egotearen baldintza bete beharko da, prezioen errebisioari ekiteko.

Kontratuaren luzapenetarako errebisio sistema bardina jarraituko da.

#### **F) BERMEAK.**

- Behin behineko bermea: kontratuko aurrekontuaren %1a. Berme hau, behinbetiko esleipena jakinarazten danetik hilabeteko epean itzuliko da.
- Behin betiko bermea: Lizitazio prezioaren %5a. Berme hau, kontratuko berme epea amaitzen danetik bi hilabeteko epean itzuliko da.



## **G) ESLEIPEN IRIZPIDEAK.**

Esleipen irizpideak hauek izango dira:

- a) **PREZIOA: 80 PUNTU**
- b) **PROIEKTUA BIDERATZEKO PLANTEATUTAKO LAN METODOLOGIA: 15 PUNTU**
- c) **KALITATEA: 5 PUNTU**

- *Prezioa:*

Eskaintza bakoitzaren puntuaketa lortzen da, eskaintza baxuena eta baloratzen dan eskaintzaren arteko zatiketarik sortzen dan koefizienteagaz, irizpidean emon daitekezan puntuekaz biderkatuz. Hau da:

### **[Ob/OI] x 80**

Ob: eskaintza baxuena.

OI: baloratzen dan eskaintza

80: prezioagaitik emon daitekezan puntuak gehienez.

- *Proiektua bideratzeko planteatutako lan metodologia:*

Lizitatuzaileak, kontratu honen xedea behar bezala burutzeko proposatzen dauan guztia, proposatzen daben funtzionamendu prozedura, mantenimendu zerbitzu hau eskaintzeko, beti ere baldintza plegu teknikoko 7. atalean xedatutako prozedura kontutan edukita.

Administrazioak, lan metodologiaren egokitasuna baloratuko dau, bai legediari, bai administrazioaren funtzionamenduari jagokonez.

- *Kalitatea*

Kalidadeko, ingurumen edota prebentzio arloko ziurtagiririk badituzten, ISO ziurtagiriak, etab....

Ziurtagiri kopuru altuenari puntuaketa altuena emon eta gainontzekoak proportzionalki baloratuko dira.



## **MINUSBALIADUNEN PLANTILAK.**

### **Gizarte Irizpideak:**

Kontratu honen esleipenerako, eta 30/2007 Legearen seigarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehentasuna ezartzen da, minusbaliadun langileen kopurua %2a baino gitxiagokoa EZ diran plantiladun lizitatzailleen alde, horrela frogatzen dabenean gaitastun teknikoa kreditatzerakoan, beti ere, honeek aurkezten dabenean proposamenak, eskaintza hoberenaren terminoak bardintzen badabenez, esleipenaren oinarri diran irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.

### **H) BERME EPEA.**

Kontratuaren iraupenarena gehi hilabete bat.

### **I) KONTRATUA EZ BETETZEAREN ZIGORRA.**

Baldintza Pleguetako 14. Atalean ezarritakoaz gain, eta 196. Artikuluari jarraituz, zigorrak proportzionaltasunez aplikatuko dira, kontratua EZ betetzeagaitiko zioaren larritasunagaz lotuta, eta zigorraren kopurua ezin izango da kontratuaren aurrekontuaren %10a baino handiagoa izan.

### **J) KONTRATISTAREN EZAUGARRI BEREZIAK. GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA, ETA KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA.**

Lizitatzailleek, kontratu honen xedea dan zerbitzuaren modukoa eskaini izanaren datuak aurkeztuko dauz parte hartzeko:

Gitxienez, azken hiru urteetan, hiru enpresa edo administrazio publikoei honelako zerbitzuak emon izana.

Hiru enpresa horreei, gitxienez bakoitzagaz fakturatutakoa, kontratu honen urteko bataz-besteko prezioa izango da (25.000,00€ BEZ barne). **(Baldintza honeetako V.Eranskina)**

### **K) ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA, EPEAK ETA ORDUTEGIA.**

LEKUA: Administrazio honetako ERREGISTRO OROKORRA ([BERH@Z](mailto:BERH@Z) - Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua, Ertzilla kalea 8, 48370 BERMEO – BIZKAIA-).

ORDUAK: 08:30etatik – 14:30etara goizetan, martitzen eta eguenetan 16:30etik 19:00etara arratsaldeetan, eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

EPEA: Hoge (20) lanegun. Iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

### **L) BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA.**

Hilabeteko epean gehienez, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Lizitatzailleei aldaketen berri emongo jakie.

### **M) DOKUMENTAZIOA JASOTZEKO TOKIA, EPEAK ETA ORDUTEGIA.**

LEKUA: Administrazio honetako ERREGISTRO OROKORRA ([BERH@Z](mailto:BERH@Z) - Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua, Ertzilla kalea 8, 48370 BERMEO – BIZKAIA-).



ORDUAK: 08:30etatik – 14:30etara goizetan, martitzen eta eguenetan 16:30etik 19:00etara arratsaldeetan, eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara.

EPEA: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte.

INFORMAZIOA eta DOKUMENTAZIOA JASOTZEKO WEB GUNEA:

[http://www.bermeokoudala.net/udalaren\\_kontratuak.html?&L=1](http://www.bermeokoudala.net/udalaren_kontratuak.html?&L=1) (euskeraz)

[http://www.bermeokoudala.net/udalaren\\_kontratuak.html?&L=2](http://www.bermeokoudala.net/udalaren_kontratuak.html?&L=2) (gaztelaniaz)

#### **N) ARGITALPEN GASTUAK**

Argitalpen gastuak kontratistari kargatuko jakoz. Gehienez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko iragarki baten gastua.

#### **O) ALDAERAK ONARTZEA.**

Ez dira aldaerak onartuko.

#### **P) AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA.**

Kontratua indarrean sartu baino aurreko ekitaldian tramitatu danez, behar beste diru aurrekusiko da ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren kontura. Horrela ba, kontratu hau konsignazio aurrikuspen nahikoa izatearen baldintzapean geratzen da.

Gainontzeko urteetarako, kontratu honek sortutako obligazioei aurre egiteko, aurrekontu partida bat sortuko da konsignazio nahikoagaz.

**2009.URTEA: 24.500,00€ BEZ barne.**

**2010. URTEA: 25.600,00€**

**2011. URTEA: 26.700,00€**

**2012. URTEA: 28.000,00€**

#### **Q) TRAMITAZIOA**

Arrunta. Prozedura Negoziatua publikidadeagaz.

#### **R) BETETEKO/ENTREGATZEKO TOKIA ETA EPEA.**

Kontratuaren iraunaldia hau izango da: **2009ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra**. Kontratua luzatu ahal izango da, alde bien adostasunagaz, beste horrenbestera, hau da, 2012.eko abenduaren 31ra arte, beti ere, jatorrizko kontratuaren epea amaitu baino arinago.

Mantentze zerbitzua emoterakoan, Baldintza Plegu Teknikoetako 7. atalean zehaztutako prozedura jarraituko da.

Udalak puntualki eskatzen dauan mantentze zerbitzuak burutzeko epea, eskaria behar bezala egin eta hurrengo egunetik hasita **lau (4) lanegunekoa** izango da.

**Kontratua hilabetero partzialki burutuko da.** Epe partzial bakoitzean, legez eginbeharreko errebisioak, eta horren ondoriozko mantenimendu lan guztiak edota irregulartasunen zuzentze lanak burutuko dira.



Mantentze zerbitzuaren beharra ikusten danean, Udalak ezartzen dauan orduan eta lekuan aurkeztu beharko dira, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorriz, garraio, dietak, kilometrajeak, eskulan, piezak eta gainontzeko gastuak esleipendunaren arriskupean eta bere kontura izanik.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez dau kalte-ordainik jasoteko eskubiderik izango, hornidura Administrazioari emon baino lehen ondasunetan galera, matxura edo kalteak izateagaitik, beti ere, Udala berandutzan erortzen ez bada zerbitzua hartzeko garaian.

Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

Emondako zerbitzuan akatsik egon ezker, gertakari horren barri emon eta hurrengo egunetik hasita, bi (2) laneguneko epearen barruan konpondu beharko dau esleipendunak.

## **S) OHARRAK**

Udal honetako eraikin bakoitzeko sute eta lapurreta sistema osoaren azalpenak Baldintza Pleguetan agertzen dira.

Estintoreen errekerria eta erretinbratu guztiak urte berean egingo balira bezala kalkulatu da lizitazio prezioa zehazteko.

## **T) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**

Kontratataren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean kokatuta badago, udalari eta herritarrei jagokonean, aurrez-aurreko hartu emon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz egin beharko dauz. Udalak euskerea baino ez dau erabiliko bere hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.

## **U) SAIL SUSTATZAILEA**

Erosketa saila

Bermeon, 2008ko abenduaren 15ean.  
Kontratazio Organoa.





**Espediente mota: Administrazio kontratazioa**

**Kontratua:** Zerbitzu kontratua, prozedura negoziatua publizitatearekin.

**ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA  
ZEHATZEN ORRIAK  
PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKINA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xedea laburpen orriaren **A) ATALEAN** agertzen dana.

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorritz egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

**2. EPEA**

Zerbitzu egiteko epea **laburpen orriaren B) ATALEAN** agertzen dana.

**3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratu honen prezioa **laburpen orriko C) ATALEAN** agertzen dana izango da.

Eskaintzaileek diru kopuru hori hobetu daikee, baina beti ere, kontuan hartuko da eskaintzaileek hobetutako prezio horretan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kanpo dagoela: Nolanahi ere, eskaintzaileak, adierazi beharko dau zein dan prezioa eta zein dan BEZari dagokion diru zenbatekoa.

**4. FINANTZIAZIOA**

Kontratu honen finantziazioa **laburpen orriko P) ATALEAN** agertzen dana izango da.

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurrikusiko da aurrekontuaren kontura.

Espedientean diru kopuru horreek noiz ordainduko diran azaltzen da, baita ekarpenak oso-osorik erabil daitezkezala ere.

**5. NOLA ORDAINDU**

Ordainketa modua **laburpen orriko D) ATALEAN** agertutakoa izango da.





## 6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Prezioen berraztertzea **laburpen orriko E) ATALEAN** agertutakoa izango da.

Prezioen berraztertzea onartzen danean, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 78 – 82. artikuluen arabera egingo da. Aplikatuko den berraztertze-formula zehaztuko da.

## 7. BERMEAK

Bermeak ezartzen diranean, **laburpen orriko F) ATALEAN** agertutakoan izango dira.

Bermeak ezartzen diran kasuetan ondorengoak izango dira kontutan:

Esleipendunari behin-behineko esleipena jakinarazten zaionetik 15 eguneko epean, esleipendunak behin betiko bermea sartu beharko du Udaleko Diruzaintzan, hau da, esleipen prezioaren %5, BEZ kanpo.

Kontratuaren berme epea amaitzen denean, berme hori esleipendunari itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude.

Behin-behineko bermea eskatzen bada, hori lizitazio prezioaren %3 arteko zenbatekoa (BEZ kanpo) izango ahal da eta **laburpen orriko F) ATALEAN azalduko da**. Berme hori kontratuaren behin-betiko esleipena egin ondoren ofizioski itzuliko zaie lizitatuzaileei.

## 8. KONTRATUA BURUTZEA

Baldintza-agiri honetan ezarritako orduan eta lekuan emon beharko dira zerbitzuak, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorriz. Dana dala, Administrazioak, kontratuak dirauen bitartean, hitzartutakoa ez, beste leku bat aukera daike.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez dau kalte-ordainik jasoteko eskubiderik izango, Zerbitzu Administrazioari emon baino lehen ondasunetan galera, matxura edo kalteak izateagaitik, beti ere, Udala berandutzan erortzen ez bada ondasunak hartzeko garaian.

Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.



Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badau kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

## 9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dagozan legezko xedapenak bete behar dauz. *Bereziki, Bermeoko Udalak onartutako Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren helburuak bete beharko ditu (Baldintza Plegu Teknikoa).*

Administrazioak ez dau inolako erantzukizunik izango xedapen horreek betetzen ez badira.

Lanak egiten jardungo dauan enpreseak, hau da, esleipendunak, udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Udalak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

## 10. - ESLEPENERAKO IRIZPIDEAK.

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 134. Artikuluak xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere.

Esleipen irizpideak zeintzuk diran, **laburpen orriko G) ATALEAN** agertutakoak izango dira.

Kontratu honen esleipenerako, eta 30/2007 Legearen seigarren xedapen gehigarrian arautzen denez, lehentasuna ezartzen da, minusbaliadun langileen kopurua %2a baino gitxiagokoa EZ diran plantiladun litzitzaileen alde, horrela frogatzen dabenean gaitastun teknikoa kreditatzerakoan, beti ere, honeek aurkeztzen dabenean proposamenak, eskaintza hoberenaren terminoak bardintzen badabez, esleipenaren oinarri diran irizpide objektiboen ikuspuntutik konparatuz.

Bestalde kontratazio organoak aurreko irizpidea kontratua esleitzeko irizpidetzat hartu dezake (“condición especial de ejecución del contrato”) eta beraz, derrigorrezkoa izatea. 102. Artikuluan arautzen da. Aukera hau, **laburpen orriko G) ATALEAN** agertutakoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epearen azken egunean, bere plantilan daukien minusbaliadun langile kopurua izango da kontutan, lehentasun hau



aplikatzerakoan, eta VII. Eranskinaren aitortpenaren bitartez kreditatuko da. Lizitatzailleak aipatutako aitortpen agiria edota eskatutako datu guztiak aurkezten ez badau, ez jako lehentasun hau aplikatuko, %2ko minusbaliadun langile kopurura heltzen EZ dala ulertuko dalako efektu guztietarako, eta ezin izango dau inolaz ere akats hori zuzendu.

Aldi baterako enpresa elkarteetan edota hainbat lizitatzaille aldi batera partehartzen badabe, lehentasun hau aplikagarri izango da, langile minusbaliatuen kopuruak aipatutako indizea gainditzen daben plantilak daukiela ulertzen danean, kontratuan lizitatzaille bakoitzaren parte hartzearen proportzioan.

#### **11. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE.**

Esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

#### **12. KONTRATUA ALDATZEA**

Herri-onurako arrazoiak dirala eta, Udalak kontratua aldatu ahal izango dau, behar berriak edo ustegabeko arrazoiak sortzen diranean. Esleipendunak ez dau inolako kalte-ordainik jasoteko eskubiderik izango, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 217 artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

#### **13. BERME-EPEA**

Berme-epe bat aurreikusiko balitz **laburpen orriko H) ATALEAN** jasoko litzateke, eta epe horretan akatsak egongo balira, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak 88. Artikuluan xedatutakoa aplikatuko litzateke.

#### **14. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

##### **A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA**

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1000 euroko (196. Artikulua).

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak



aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

### **B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA**

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezi honeen **laburpen orriko I) ATALEAN** aipatzen diren zigorrak ezartzea (196.7. Artikulua).

## **15. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK**

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 206 - [284 \( zerbitzu kontratuetan\)](#) artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

## **16. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK**

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengaitik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera emotea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta horren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### **17. LIZITAZIO IRAGARKIA**

- a) Prozedura negoziatua zenbatekoari begira erabiltzen da 158.e) artikuluko kasua dalako, kontratazio organoak lizitazio iragarki bat publikatu beharko du udal web orrialdean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

### **18. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 160, 161 eta 162. Artikuluetan bat etorritik, testu horren 158.e) artikuluan jasotako kasua baita.

Edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatu daiteke parte-hartzaileekin, kontratuaren gaiari lotuta badago.



Lanak egiten jardungo dauan enpreseak, Udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Era berean, Udalak **euskera** baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

## 19. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

**Laburpen orriko J) ATALEAN** zehaztuko dira arlo honetarako eskatutako baldintzak.

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoei parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen tekniko eta ekonomiko frogatzen badituzte, eta kontratatze debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. artikuluan adierazitako arazoak direla eta. Kaudimena egiaztatze eta ebaluatze bideak Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 64 eta 66 artikuluetan ezarritakoak izango dira. Horiek zehaztuko dira J) atalean. Kontuan hartu esperientzia, langileen titulazioak, fakturazioa,... kontratatze kontuan hartu nahi bada atal honetan jaso beharko dira, parte hartzeko derrigorrezko baldintza legez.

Pertsona fisiko edo juridikoei beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arazoak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jardura nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gainekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

## 20. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio tekniko ere, **laburpen orriko K) ATALEAN** agertutako lekuan, ordutegian eta epean azertu ahal izango da.

Proposamen horiek adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, bi kartazalen barruan itxita. "A" kartazalean honako hau idatziko da:



“A KARTAZALA: .....ZERBITZUREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”.Horretan ondoko agiriak sartuko dira:

\*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta badago, behean aipatutako dokumentazioaren ordezkari hau aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitortpena **(IV. Eranskina)**.

\* Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean inskribatuta EZ badago ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, behin-betiko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.
- b) Lehiatzailea persona juridikoa izanez gero:
  - Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
  - Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
  - Arduradunaren NAN.
  - Kontratatzeko debekurik ez duela aitortzea (II Eranskina).
  - Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.
  - Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.
- c) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VI. Eranskina)
- d) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako



ekonomia eta finantza-kaudimena (V. Eranskina).

- e) Eskatzen bada, indarreko empresa-sailkapenaren ziurtagiria.
- f) Udalaren diruzaintzan behin-behineko bermea eman izanaren frogagiria.

\*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroan izena eman badago, aipatutako dokumentazioaren ordez hau aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitortpena **(IV. Eranskina)**.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopia aurkeztetokotan, behin-betiko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

Lizitazio baldintzak betetzen dituzten enpresei proposamena aurkezteko gonbitea bialduko zaie. Proposamen hori aurkezteko epea K) atalean agertutakoa izango da (15 egunekoa gutxienez – 151.2. Art. Prozedura negoziatua publikidadeagaz), gonbitea bidaltzen denetik zenbatzen hasita. Prozedura negoziatuan publikidade barik, proposamenak aurkezteko gutxienezko eperik ez da legedian zehazten. K) atalean agertzen dan epea Kontratazio Organoak zabaldu ahal izango dau.

Proposamena “B” kartazalean sartuko da. Kartazal horren titulua hau izango da : “PROPOSAMENA”. Hona hemen “B” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) **Proposamen bakarra**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren **I Eranskin** gisa agertzen den ereduaren arabera idatzita.
- b) Hala aurreikusten bada, B gutunazal honetan proposamen ekonomikoaren ereduaren Eranskinak sartuko dira.
- c) Ez dira onartuko proposamen hauek:
  - Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
  - Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.



- Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
  - Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
  - Pleguaren **I. Eranskin** gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
  - Eskaintzailearentzat bideraezin egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.
- d) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.
- e) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorak izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.

Dokumentazio Teknikoa: Eskaintzaileek orrialdeak zenbatuta dituen dossier bat aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro.

## **21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Behin-behineko esleipena, **laburpen orriko L) ATALEAN** agertutako epean egingo da, hilabeteko epean gehienez, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Behin-behineko erabakia lizitatzailerei jakinaraziko zaie. Horrez gain, web orrialdean eta horrela bajagoko, BAOn edo legeak exijitutako aldizkari ofizialetan publikatuko da.

Behin-behineko esleipenaren erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita 15 egun balioduneko epean, behin-behineko esleipenerako proposatuta dagoen lehiatzaileak honako hauek egin beharko ditu:

- a) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- b) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- c) Dokumentazio orokorraren artean, agiriren bat aurkeztu ez bada, hori aurkeztu.
- d) Aurreko epea igarota, behin-betiko esleipena egingo da, hori web orrialdean publikatuko delarik.
- e) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua





administrazio-agiri gisa formalizatzeko. Kontratua 10 egun balioduneko epean formalizatuko da, behin-betiko esleipena jakinarazten den eguneko biharamunetik zenbatzen hasita.

Kontratuaren behin betiko esleipena behin-behineko esleipendunari egitea ez denean bidezkoa, ez dituelako horretarako beharrezko baldintzak betetzen, beste lehiaketa bat egin aurretik, administrazioak, behin-behineko beste esleipen bat egin ahal izango du hurrengo lehiatzailearen edo lehiatzaileen alde, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera, betiere hori posible bada eta esleipendun berriak adostasuna agertu badu. Kasu horretan, esleipendun horri hamar laneguneko epea emango zaio aurreko ataleko bigarren paragrafoan adierazitakoa bete dezan.

Prozedura hori erabili ahal izango da erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuen kasuan ere, hasitako kontratu bat betetzen jarraitzea bada kontua eta kontratu hori ebatzitzat adierazia izan bada

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

## **22. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA**

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, behin-behineko esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.



Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

### **III. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **23. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **24. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA**

30/2007 Legearen 37. Artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak, harmonizatutako erregulazioaren mende dauden kontratuen esleipen prozeduretan hartzeko, subentzionatutako kontratuak, II. Eranskinen 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 206.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, artikuluko honetan arautzen den kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira. 97. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira behin-behineko esleipen akordioak, lehiaketa arautzen duten baldintza agiriak eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituztenak, eta aurreko prozeduran hartutako tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute.



Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientea egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango diete interesdunek, zuzen dezaten, eta behin-behineko esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.

Errekurtsoa beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsuaren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek eta, edozein kasutan, lehiatzaileek.

Autonomia erkidego bakoitzeko arauak ezartzen dutenaren kalterik gabe (eta edozein kasutan, administrazio bidea agortzen duten erabakiak emango dituen organo batek izan beharko du eskumen hori), errekurtsu berezia ebazteko eskumendunak izango dira: kontratazio organoa administrazio publiko baten kontratuak badira, edo erakunde kontratatzailea atxikita dagoen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko burua edo haren zaintza daukana, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Azkeneko kasu horretan, erakunde kontratatzailea administrazio batekin baino gehiagorekin lotuta dagoenean, kontrol edo partaidetza nagusia daukanari dagokion organoa izango da eskumenduna.

Kontratu subentzionatuei dagokienez, eskumena izango du subentzioa eman duen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko titularrak, edo subentzioa eman duen erakundea atxikita dagoenekoak, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Sektore publikoko subjektu desberdinetako subentzioak dauden kasuetan, zenbateko handieneko subentzioa kontuan hartuta zehaztuko da eskumena eta, zenbateko berdinetan, lehenengo eman dena kontuan hartuta.

Kontrako berriazko zehaztapenetan izan ezik, kontratazio arloko errekurtsu berezia ebazteko eskumena kontratatzeke eskumenarekin batera eman dela ulertuko da. Hala ere, kalteen ondoriozko kalte-ordainak ezartzeko ahalmena ezin izango da eskuordetu, eta horren gainean, edozein kasutan, organo eskuordetzaileak ebatzi beharko du. Eragin horietarako, kalte-ordain bat onartzea bidezkotzat joz gero, espedientea organo eskuordetzaileari igorriko zaio, eta hark, aurretiaz eta berriaz eskumenak bereganatu beharrik gabe, dagokion errekurtsuaren gainean ebatziko du.

Kontratazio arloan errekurtsu berezia ezartzeko epea hamar lanegunekoa izango da, aurkaratutako ekintza jakinarazten edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatuta. Errekurritutako ekintza kontratuaren behin-behineko esleipena bada, epea zenbatuko da ekintza hori egunkari ofizial baten edo kontratazio organoaren kontratatzailearen eskakizunetan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, 135.4 artikuluan adierazitakoaren arabera.



Errekurtso idazkia kontratazio organoaren erregistroan aurkeztu beharko da, edo errekurtsoaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Kontratuaren esleipen prozedura 96. artikuluan aurreikusitako premiazko bidetik tramitatzen bada, errekurtsoa aurkezteko epea zazpi lanegunekoa izango da, eta akatsak konpontzekoa bi lanegunekoa.

Errekurritutako ekintza behin-behineko esleipena bada, kontratazio espedientearen tramitazioa bertan behera geratuko da errekurtsoa berariaz ebazten den arte, eta, beraz, ezin izango da behin betiko esleipenik egin ez kontratua egin. Hala ere, errekurtsoa enpresaburu batzuek, kopuru mugarik gabe, parte har dezaketen esparru akordio baten behin-behineko esleipen ekintza baten kontra ezarri bada, ebazpena emateko eskumena daukan organoak bertan behera geratzea altxatu ahal izango du errekurtsoa aurkeztu denetik bost lanegun igaro eta gero.

Errekurtso bat aurkezten bada, horren berri emango zaie gainerako interesdunei, eta bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsoen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekurtsoaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die. Edozein kasutan, errekurtsoa jarri zenetik hogeitau lanegun igaro badira eta ez bada ebazpenaren berri eman, interesdunak ez onartuzat jo ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko eraginetarako, berariazko ebazpena emateko betebeharraren kalterik gabe eta, hala badagokio, berariazko ebazpena ematen den bitartean, 7. atalean ezarritako bertan behera geratzea altxatu gabe.

Errekurtsoaren ebazpenak errekurtsoa edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartuzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebaztuko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean edo prozedurako arau-haustearen ondorioz kalteak jaso dituzten pertsonen kalte-ordaina ematearen gainean ere.



Errekursoaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 135.4 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekursoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera

## **25. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratutik sortzen diran auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Bermeon, 2008(e)ko abenduaren 15ean



## I ERANSKINA Proposamen ekonomikoaren eredia

..... Jaun/Andreak,  
..... Helbidearekin eta .....  
zenbakiduneko NANarekin, nire izenean edo .....  
Helbidea eta ..... IFZ daukan .....  
izeneko enpresaren ordez,

### AITORTZEN DUT:

- I.- Sute eta lapurretei aurre egiteko sistemen mantenimendua eta beharrezko diran estintore, bie edota alarma sistema barrien hornidura eta instalazio zerbitzua xede daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
- II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administrazioen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.
- III.- Ordezkatzen dudak enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.
- IV.-Aipatutako kontratuaren betearazpena .....(zenbakitan/hitzetan) Eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa .....€koa ( zenbakitan /hitzetan) izango dala.

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



**II ERANSKINA  
Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko NANarekin,  
..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordezt,

**KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN  
DU**

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 49. Artikuluak ezartzen dituen debekuetatik bat bera ere ez duela.

Eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:



### III ERANSKINA

#### Lizitzaileek betetzeko inprimakia

#### ENPRESAREN DATUAK

##### 1. Enpresa indibiduala

Izena:

NAN:

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

PK:

Erregistratutako merkataritza- izena:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

##### 2. Gizarte-enpresa:

Izena:

IFZ:

Eratze-data:

.....ko Merkataritza Erregistroan

..... datan inskribatuta.

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

Ondorengo giza-eskiturak:

#### IZENA

1. Aldatzea

2. Handitzea

3. Beste batzuk

#### DATA

...../...../.....

...../...../.....

...../...../.....

##### 3. Ahalduna:

Izena:

Ahalordetze-eskitura :

- Data :

- .....ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:







NAN:



**IV ERANSKINA**

**Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru  
Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroko datuen baliagarritasunaren  
Zinpeko Aitorpenaren Eredua**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin , ..... helbidea eta  
.....IFZ daukan ..... izeneko  
enpresaren ordezt,

**KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN  
DU**

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru  
Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren  
datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren  
Kontratuen 30/2007 Legearen 49. Artikuluari dagozkionak.

Sinatuta:  
NAN:



**V ERANSKINA  
KAUDIMEN EKONOMIKOA**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin , ..... helbidea eta  
.....IFZ daukan .....izeneko enpresaren ordezt,  
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen  
ekonomikoari begira,

**ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:**

Enpresaren negozioen kopurua azken hiru urtetan ondokoa izan dala:

**2005. Urtea**

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

**2006. Urtea**

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

**2007. Urtea**

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta  
gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:



**VI ERANSKINA  
KAUDIMEN TEKNIKOA**

.....Jaun/Andreak,.....zenbakid  
uneko NANarekin , ..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordez,  
..... xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen  
ekonomikoari begira,

**ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:**

1. Azken hiru urtetan empresa honek egindako lanak ondokoak izan direla:
  - 2005. Urtea
  - 2006. Urtea
  - 2007. Urtea
2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:
3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:
4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen tekniko frogatuta gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2008ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:



**VII. ERANSKINA:  
MINUSBALIADUN LANGILERIARI BURUZKO AITORPENA.**

.....J<sup>a</sup>/A<sup>a</sup>.....NAN zenbakiduna,  
.....zenbakiduneko IFK daukan .....enpresaren ordezkari eta  
izenean,

**Erantzunkizunpean, Adierazten dau:**

1.- Agiri honek aurkezteko datuz, goian aipatutako enpresak ondorengo langile kopuru eta motak daukazala:

- MINUSBALIADUN langileen kopurua, guztira:.....

- Enpresaren plantilakoak diranak eta besteren kontura lan egiten daberen langileen kopurua, autonomoak eta bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira: .....

- Enpresaren plantilako langile guztien artean, MINUSBALIADUN langileek suposatzen daberen portzentaia, autonomoak edota bere kontura lan egiten daberen langileak bastertuta, guztira: .....

Aitorpen hau kreditatzeko asmoagaz, administrazio honek Enpresa lizitatzailerari eskatzen deustozan agiri guztiak entregatzeko konpromezua hartzen dau.

Bermeon, 200...ko .....aren .....an.



Espediente moetea: Administrazino kontratazinoa

**Kontratua:** ..... kontratua, prozedura negoziatuaren bidezkoa

**ENPRESAREN IZENA**

Helbidea

**JARDUNBIDE NEGOZIATUAN PARTE HARTZEKO  
GONBITEA**

Erakunde hau, behean zehaztutako kontratua kudeatzen ari da jardunbide negoziatu bidez. Hori dala eta, horren barri emoten deusut, eskaintza aurkezteko aukera izan daizun. Eskaintza aurkeztu nahi badozu, jarraian adierazitako oharpenaren arabera egin beharko dozu:

1. **Kontratuaren xedea:** .....
2. **Lizitazio prezioa:** ..... euro, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa: ..... euro.
3. **Esleipen irizpideak :** baldintza administratiboen orrietan zehazten direnak.
4. **Eskaintzak aurkeztea**
  - a. Epea: Gonbitea jaso eta biharamunetik ..... egun (prozedura negoziatua publikitate bidezkoa bada, epe hori gutxienez egutegiko 10 egunekoa izango da / publikitate bakoa bada ez dago epe zehatzik).
  - b. Edukia eta modua: Administrazio baldintza zehatzen agirian zehaztutakoaren arabera.
  - c. Lekua
    - Erakundea: Bermeoko Udala
    - Bulegoa: Berh@z
    - Helbidea: Ertzilla kalea 6 - 8
    - Herria eta posta kodea: Bermeo 48370
    - Telefonoa: 94 617 9191

- Faxa: 94 688 2312



- E-Mail-a: antolakuntza@bermeo.org

d. Ordutegia: Lanegunero, 08:30 – 14:30 / Martitzenatan eta eguenatan 16:30etik 19:00etara / Zapatuetan 10.00 – 13.00.

**5. Proposamenen balorazioa (noiz, non eta zein ordutan irekiko diren kartazalak).**

**Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legeak 150.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, gonbitearekin BETI erantsiko dira baldintza administratiboen eta baldintza teknikoan orriak.**

Bermeon, 2008ko .....ren .....an

ALKA

